



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

## Ordenanza Fiscal nº 2 Impuesto sobre Actividades Económicas

### 2. Ordenantza Fiskala Jarduera ekonomikoen gaineko zerga

HOJA 9. ORRIA

#### I. IZAERA ETA ZERGA-EGITATEA

##### 1. ARTIKULUA

1. *Ekonomi Jardueren gaineko Zerga zuzeneko zerga erreala da. Bizkaiko Lurralde Historikoan, Ermuko udal mugartean hain zuzen ere, enpresa, lanbide edo arte jarduerak egitea da zerga horren egitate, besterik gabe, berdin dio jarduerak lokal jakin batean egiten diren edo ez eta zergaren tarifyan zehazturik dauden edo ez.*

2. *Zerga honen ondoretarako, enpresa jardueratzat hartzen dira honako zerga arautzen duen 6/1989 Foru Arauan adierazitakoak.*

##### 2. ARTIKULUA

1. *Jarduera bat enpresa, lanbide edo arte jardueratzat joko da hura egiten duenak bere kabuz antolatu behar ditueneko ekoizpideak eta giza baliabideak edo bietako bat, ondasun edo zerbitzuen ekoizpen edo banaketan jarduteko.*

2. *Zergapeko jardueren edukia zergaren tarifetan zehaztuko da.*

##### 3. ARTIKULUA

*Zergapeko jarduerak egiten direla frogatzeko, zuzenbidean onar daitekeen edozein bide erabiliko da, eta, bereziki, Merkataritza Kodearen 3. artikuluan ezarri diren bideak.*

##### 4. ARTIKULUA

*Ez dira zerga honen zerga-egitatetzat joko ondorengo jarduera hauek:*

1. *Enpresen aktibo finkoan sartuta dauden ondasunak besterentzea, baldin eta ondasun*

#### I. NATURALEZA Y HECHO IMPONIBLE

##### ARTÍCULO 1

1. El Impuesto sobre Actividades Económicas es un tributo directo de carácter real, cuyo hecho imponible está constituido por el mero ejercicio en el Territorio Histórico de Bizkaia, en el término municipal de Ermua, de actividades empresariales, profesionales o artísticas, se ejerzan o no en el local determinado y se hallen o no especificadas en la tarifa del impuesto.

2. Se consideran, a los efectos de este impuesto, actividades empresariales, los señalados en la Norma Foral 6/89 Reguladora del Impuesto.

##### ARTÍCULO 2

1. Se considera que una actividad se ejerce con carácter empresarial, profesional o artístico, cuando suponga la ordenación por cuenta propia de medios de producción y de recursos humanos o de uno de ambos, con la finalidad de intervenir en la producción o distribución de bienes o servicios.

2. El contenido de las actividades gravadas se definirá en las tarifas del impuesto.

##### ARTÍCULO 3

El ejercicio de las actividades gravadas se probará por cualquier medio admisible en derecho y, en particular, por los contemplados en el artículo 3 del Código de Comercio.

##### ARTÍCULO 4

No constituye hecho imponible en este impuesto el ejercicio de las siguientes actividades:

1. La enajenación de bienes integrados en el activo fijo de las empresas que hubieran

*horiek, ibilgetu moduan, inbentarioan behar bezala jasota egon badira eskualdaketa burutu baino urte bi lehenagotik, gutxienez; eta saltzailearen erabilera pribaturako diren ondasunak saltzea, baldin eta arestian adierazi den epean erabili baditu.*

*2. Lan pertsonalen edo lanbide-zerbitzuen ordainetan jasotzen diren ekoizkinak saltzea*

*3. Establezimenduaren apaindurarako baino ez diren gaien erakusketa. Aldiz, bezeroei oparitzeko diren gaien erakusketa zergapean egongo da.*

*4. Txikizkako salmenta denean, ekintza bakarra edo eragiketa soltea egitea.*

## **II. SALBUESPENAK**

### **5. ARTIKULUA**

*1. Zergatik salbuetsita egongo dira:*

*a) Estatu, Euskal Autonomia Erkidegoa, Bizkaiko Lurralde Historikoa eta horien administrazio-erakunde autonomiadunak.*

*b) Nazioarteko itunben edo hitzarmenen arabera salbuespena aplikatu behar zaien subjektu pasiboak.*

*c) Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaileak eta indarreko legeriaren arabera eratuta dauden mutualitate eta montepioak.*

*d) Ikerketa-erakunde publikoak eta maila guztietako irakaskuntza-establezimenduak, erabat Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren, toki erakundeen edo ongintza edota herri onurako izendapena duten fundazioen funtsez mantentzen direnak, eta orotariko irakaskuntza-*

figurado debidamente inventariados como tal inmovilizado con más de dos años de antelación a la fecha de transmitirse, y a la venta de bienes de uso particular y privado de la parte vendedora siempre que los hubiese utilizado durante igual período de tiempo.

2. La venta de los productos que se reciben en pago de trabajos personales o servicios profesionales.

3. La exposición de artículos con el fin exclusivo de decoración o adorno del establecimiento. Por el contrario, estará sujeta al impuesto la exposición de artículos para regalo a los/as clientes/as.

4. Cuando se trate de venta al por menor la realización de un solo acto u operación aislada.

## **II. EXENCIONES**

### **ARTÍCULO 5**

1. Estarán exentos del impuesto:

a) El Estado, la Comunidad Autónoma del País Vasco, el Territorio Histórico de Bizkaia y las Entidades Locales, así como sus respectivos organismos autónomos de carácter administrativo.

b) Los sujetos pasivos a los que les sea de aplicación la exención en virtud de Tratados o de Convenios Internacionales.

c) Las Entidades gestoras de la Seguridad Social y de Mutualidades y Montepíos constituidos conforme a lo previsto en la legislación vigente.

d) Los organismos públicos de investigación, los establecimientos de enseñanza en todos sus grados costeados íntegramente con fondos del Estado, de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de la Diputación Foral de Bizkaia o de las Entidades Locales, o por Fundaciones declaradas benéficas o de utilidad pública, y los



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

## Ordenanza Fiscal nº 2 Impuesto sobre Actividades Económicas

### 2. Ordenantza Fiskala Jarduera ekonomikoen gaineko zerga

HOJA 10. ORRIA

establezimenduak, irabazi-asmorik gabe hezkuntza-iturpean egonik, beren ikasleei liburuak edo idatz-artikuluak edo pentsio erdian zein baretegi zerbitzuak ematen dizkietenak, nahiz eta salbuespen moduan establezimenduan bertan saldu irakaskuntza tailerretako ekoizkinak, beti ere salmenta horren emaitza lehengaiak erosteko edo establezimenduaren artapenerako erabiltzen denean eta ez duenean norbanako edo gainontzeko batentzako erabilerarik.

e) Urritu fisiko, psikiko edo zentzumenezkoen elkarte edo fundazioak, irabazteko xederik ez dutenean, burutzen duten jarduera pedagogikoa, zientifikoa, laguntzakoa eta enpleguaren alorrekoa denean eta minusbaliatuen irakaskuntza, hezkuntza, birgaikuntza eta babesa eskuratzeko direnean, nahiz eta helburu horietarako dituzten lantegietan ekoizten diren ekoizkinak saldu, beti ere salmenta horren emaitza lehengaiak erosteko edo establezimenduaren artapenerako erabiltzen denean eta ez duenean norbanako edo gainontzeko batentzako erabilerarik.

f) Gurutze Gorria eta arauz zehazten diren antzeko beste erakundeak.

g) Zerga honen indarraldiko lehenengo bi zergaldietan jarduerari ekiten dioten subjektu pasiboak.

Ondore horietarako, jarduera bat ez da hasitzat emango ondorengo kasuetan:

1. Jarduera hori aurretik beste titulartasun batekin burutu denean. Halan gertatuko da jarduera-adarrak batu, bereizi eta gehitzen direnean.

2. Merkataritza Kodearen 42. artikulua erabera, subjektu pasiboa elkarte-talde bateko

establecimientos de enseñanza en todos sus grados que, careciendo de ánimo de lucro, estuvieren en régimen de concierto educativo, incluso si facilitasen a sus alumnos libros o artículos de escritorio o le prestasen los servicios de media pensión o internado y aunque por excepción vendan en el mismo establecimiento los productos de los talleres dedicados a dicha enseñanza, siempre que el importe de dicha venta, sin utilidad para ningún particular o tercera persona, se destine, exclusivamente, a la adquisición de materias primas o al sostenimiento del establecimiento.

e) Las Asociaciones y Fundaciones de personas disminuidas físicas, psíquicas y sensoriales, sin ánimo de lucro, por las actividades de carácter pedagógico, científico asistencial y de empleo que para la enseñanza, educación, rehabilitación y tutela de personas minusválidas realicen aunque vendan los productos de los talleres a dichos fines, siempre que el importe de dicha venta, sin utilidad para ningún particular o tercera persona, se destine exclusivamente a la adquisición de materias primas o al sostenimiento del establecimiento.

f) La Cruz Roja y otras Entidades asimilables que reglamentariamente se determinen.

g) Los sujetos pasivos que inicien el ejercicio de su actividad, durante los dos primeros periodos impositivos de este impuesto en que se desarrolle la misma.

A estos efectos, no se considerará que se ha producido el inicio del ejercicio de una actividad en los siguientes casos:

1. Cuando la misma se haya desarrollado anteriormente bajo otra titularidad, circunstancia que se entenderá concurre, entre otros supuestos, en los casos de fusión, escisión o aportación de ramas de actividad

2. Cuando el sujeto pasivo forme parte de un grupo de sociedades conforme al artículo 42

*kide denean, jarduera berria denean salbu, taldea osatzen duen ezein enpresa lehenago aritu gabea.*

*3. 100eko 25 baino gehiago jarduera bera egiten ari diren enpresek partaidetza dutenean.*

*Aurreko zenbakietan ezarritako kasuetarako jarduera bera burutu delakotzat emango da berori zergaren tarifetan talde berean sailkatuta dagoenean*

*h) Zergaren Foru Arauan ezarritako baldintzen arabera, eragiketa bolumena 2.000.000 eurotik beherakoa duten subjektu pasiboak.*

*2. Aurreko idatz-zatiko d) eta e) letretan araupetu diren onurak eskatu egin beharko dira eta, bidezkoa denean, alderdiak eskatu ondoren emango dira.*

### **III. SUBJEKTU PASIBOA**

#### **6. ARTIKULUA**

*Zerga honen subjektu pasiboak dira pertsona fisikoak eta juridikoak eta Bizkaiko Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 34. artikuluan adierazitako erakundeak, baldin eta zerga-egitatea sortzen duten jardueretarikoa baten bat egiten badute Bizkaiko Lurralde Historikoan, hain zuzen ere Ermuko udal mugartean.*

### **IV. ZERGA KUOTA**

#### **7. ARTIKULUA**

*Zerga-kuota izango da tarifak, zergaren Foru Arauan eta berau osatu eta garatzen duten xedapenetan adierazitakoaren arabera eta, behar denean, honako ordenantza fiskal honetan araututako koefizienteak, indizea eta hobariak aplikatuz sortzen den emaitza.*

del Código de Comercio, salvo que se trate de una actividad nueva no desarrollada con anterioridad por ninguna de las empresas integrantes del grupo.

3. Cuando se halle participada en más de un 25 por 100 por empresas que hallan desarrollado la misma actividad.

A efectos de lo dispuesto en los números anteriores, se entenderá que se desarrolla la misma actividad cuando ésta esté clasificada en el mismo grupo dentro de las Tarifas del Impuesto.

h) Los sujetos pasivos que tengan un volumen de operaciones inferior a 2.000.000 de euros, en los términos y condiciones establecidas en la Norma Foral del Impuesto.

2. Los beneficios regulados en las letras d) y e) del apartado anterior tendrán carácter rogado y se concederán cuando proceda, a instancia de parte.

### **III. SUJETO PASIVO**

#### **ARTÍCULO 6**

Son sujetos pasivos de este impuesto las personas físicas o jurídicas, y las Entidades a que se refiere el artículo 34 de la Norma Foral General Tributaria de Bizkaia siempre que realicen en el Territorio Histórico de Bizkaia, en el término municipal de Ermua, cualquiera de las actividades que originan el hecho imponible.

### **IV. CUOTA TRIBUTARIA**

#### **ARTÍCULO 7**

La cuota tributaria será la resultante de aplicar las tarifas, de acuerdo con los preceptos contenidos en la Norma Foral del Impuesto, en las disposiciones que los complementen y desarrollen y, en su caso, los coeficientes, el índice y las bonificaciones reguladas en la presente ordenanza fiscal.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

## Ordenanza Fiscal nº 2 Impuesto sobre Actividades Económicas

### 2. Ordenantza Fiskala Jarduera ekonomikoen gaineko zerga

HOJA 11. ORRIA

#### 8. ARTIKULUA

*Zergaren tarifetan gutxieneko kuotak ezarriko dira eta horiek aplikatzeko jarraibideak emango dira. Zergaren tarifak araugintzako foru dekretu bidez onetsiko dira. Gutxieneko kuotak finkatzeko oinarriak honakoak izango dira:*

1. *Zergapeko jardueren edukiaren mugaketa, sektore ekonomikoen ezaugarrien arabera. Oro har, zergaren sortzapen unean gertatu beharreko elementu finkoen bidez tipifikatuko dira zergapeko jarduerak.*

2. *Zergapeko jarduerak sailkatzeko epigrafe eta idazpuruak, ahal dela, Ekonomi Jardueren Nazio Sailkapenaren arabera ordenatuko dira.*

3. *Euren etekin ekonomiko urriagatik zero kuota ezartzen zaien jardueren edo jarduera-modalitateen zehaztapena.*

4. *Tarifak aplikatuta ateratzen diren kuotak, gehienez ere, zergapeko jarduerak ustez ematen duen batez besteko etekinaren %15 izan daitezke. Kuotak finkatzerakoan, aurreko Lehen oinarrian adierazitakoaz gainera, kontuan hartuko da zergapeko jarduerak egiteko erabiltzen diren lokalen azalera.*

5. *Zergaren tarifetan, halaber, Bizkaiko Lurralde Historiko osoan jarduteko gaitasuna ematen duten kuotak finkatu ahal izango dira. Hori egiten denean, horrelako kuoten arabera zerga ordaindu ahal izateko baldintzak eta kuoten zenbatekoa adieraziko dira, dena-delako jardueraren leku-eremua kontuan izanik.*

#### 9. ARTIKULUA

*Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorrei buruzko foru arauetan zerga honen tarifak aldarazi ahal izango dira eta euretan*

#### ARTÍCULO 8

Las tarifas del impuesto, en las que se fijarán las cuotas mínimas, así como la instrucción para su aplicación, se aprobarán mediante Decreto Foral Normativo. La fijación de las cuotas mínimas se ajustarán a las bases siguientes:

1. Delimitación del contenido de las actividades gravadas de acuerdo con las características de los sectores económicos, tipificándolas, con carácter general, mediante elementos fijos que deberán concurrir en el momento del devengo del impuesto.

2. Los epígrafes y rúbricas que clasifiquen las actividades sujetas se ordenarán, en lo posible, con arreglo a la Clasificación Nacional de Actividades Económicas.

3. Determinación de aquellas actividades o modalidades de las mismas a las que por su escaso rendimiento económico se les señale cuota cero.

4. Las cuotas resultantes de la aplicación de las Tarifas no podrá exceder del 15% del beneficio medio presunto de la actividad gravada, y en su fijación se tendrá en cuenta, además de lo previsto en la base Primera anterior, la superficie de los locales en los que se realicen las actividades gravadas.

5. Asimismo, las tarifas del impuesto podrán fijar cuotas que faculden para ejercer en todo el Territorio Histórico de Bizkaia, señalando las condiciones en que las actividades podrán tributar por dichas cuotas y fijando su importe, teniendo en cuenta su respectivo ámbito espacial.

#### ARTÍCULO 9

Las Normas Forales de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia podrán modificar las tarifas del impuesto y

dauden kuotak eguneratu.

## 10. ARTIKULUA

1. Zergaren tarifetan ezarritako gutxieneko kuotak, subjektu pasiboak dituen eragiketa bolumenaren arabera haztapen koefizientea aplikatuz gehituko dira. Koefizientea kalkulatzeko honako taula hau erabiliko da:

Eragiketa bolumena	Koefizientea	Volumen de operaciones	Coeficiente
2.000.000,00 eta 6.000.000,00 bitartekoa	1,20	Desde 2.000.000,00 hasta 6.000.000,00	1,20
6.000.000,01 eta 10.000.000,00 bitartekoa	1,22	Desde 6.000.000,01 hasta 10.000.000,00	1,22
6.000.000,01 eta 10.000.000,00 bitartekoa	1,24	Desde 10.000.000,01 hasta 50.000.000,00	1,24
50.000.000,01 eta 100.000.000,00 bitartekoa	1,27	Desde 50.000.000,01 hasta 100.000.000,00	1,27
100.000.000,01etik gorakoa	1,30	Más de 100.000.000,01	1,30
Eragiketa bolumenik ez	1,25	Sin volumen de operaciones	1,25

2. Behin aurreko idatz-zatian adierazitako koefizienteak aplikatuta ateratzen diren kuotak, Ermuko udal mugartean ekindako jarduera guztientzako berdina den koefizientea aplikatuz gehituko dira; 2,04ko koefizientea, alegia.

## 11. ARTIKULUA

Aurreko artikuluan adierazitako koefizienteak aplikatuz gehitutako kuotetan, establezimendua udalerrian dagoen tokiaren arabera aplikatuko diren indizeen taula hau ezarri du Ermua Hiriko Udalak:

1. kategoriako kalea	1,6
2. kategoriako kalea	1,4
3. kategoriako kalea	1,3

actualizar las cuotas contenidas en las mismas.

## ARTÍCULO 10

1. Las cuotas mínimas fijadas en las tarifas del impuesto se incrementarán mediante la aplicación de un coeficiente de ponderación en función del volumen de operaciones del sujeto pasivo de acuerdo con el siguiente cuadro:

2. Las cuotas resultantes de la aplicación de los coeficientes señalados en el apartado anterior, se incrementarán mediante la aplicación sobre las mismas de un coeficiente único para todas las actividades ejercidas en el término municipal de Ermua, del 2,04.

## ARTÍCULO 11

El Ayuntamiento de la Villa de Ermua establece sobre las cuotas incrementadas por aplicación de los coeficientes señalados en el artículo anterior, la siguiente escala de índices que pondera la situación física del establecimiento:

1. kategoriako kalea	1,6	1ª Categoría de calle	1,6
2. kategoriako kalea	1,4	2ª Categoría de calle	1,4
3. kategoriako kalea	1,3	3ª Categoría de calle	1,3



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

## Ordenanza Fiscal nº 2 Impuesto sobre Actividades Económicas

### 2. Ordenantza Fiskala Jarduera ekonomikoen gaineko zerga

HOJA 12. ORRIA

#### V. ZERGALDIA ETA SORTZAPENA

##### 12. ARTIKULUA

1. Zergaldia egutegiko urtea izango da, alta aitortzen direnean izan ezik; hala denean, jarduera hasten denetik egutegiko urtea bukatu artekoa izango da zergaldia, artikuluko honen 3. idatz-zatian ezarritakoaren kalterik gabe.

2. Zergaldiko lehen egunean sortuko da zerga, eta kuotak ezin izango dira txikitu, salbu eta, alta aitortzen kasuetan, jardueraren hasierako eguna egutegiko urtearen lehen eguna ez denean, horrelakoetan kuotak urtea amaitzeko egutegiko urtetik falta diren hiru hilekoen, jarduera hasi den hiru hilekoa barne, kopuruaren arabera, proportzionalki, kalkulatu dira eta.

Halaber, eta jarduerari baja ematen zaionean, kuotak hiru hileko naturaletan hainbanatu ahal izango dira, jarduerari utzi zaion hiru hilekoa barne.

3. Ikuskizunak direnean, kuotak emanaldi solteen arabera ezarrita badaude, emanaldiren bat egiten den bakoitzean gertatuko da zergaren sortzapena, eta aitortzen arau bidez ezarritako eran aurkeztu beharko dira.

#### VI. KUDEAKETA

##### 13. ARTIKULUA

1. Zergaren kudeaketa matrikula egiten denean hasiko da. Matrikula hori urtero egingo da eta zentsuez osatuko da; zentsu horietan ekonomi jarduerak, subjektu pasiboak, zerga zorrak eta, halakorik egonez gero, foru errekarqua jasoko dira. Matrikula jendearen eskueran egongo da udaletxean.

2. Subjektu pasiboek aitortzen aurkeztu beharko dituzte zerga honen matrikulan, arau

#### V. PERÍODO IMPOSITIVO Y DEVENGO

##### ARTÍCULO 12

1. El período impositivo coincide con el año natural, excepto cuando se trate de declaraciones de alta, en cuyo caso abarcará desde la fecha de comienzo de la actividad hasta el final del año natural.

2. El Impuesto se devenga el primer día del período impositivo y las cuotas serán irreducibles, salvo cuando, en los casos de declaración de alta, el día de comienzo de la actividad no coincida con el año natural, en cuyo supuesto las cuotas se calcularán proporcionalmente al número de trimestres naturales que restan para finalizar el año, incluido el del comienzo del ejercicio de la actividad.

Asimismo, y en el caso de baja en el ejercicio de la actividad, las cuotas serán prorrateables por trimestres naturales, incluido aquél en el que se produzca dicho cese.

3. Tratándose de espectáculos, cuando las cuotas estén establecidas por actuaciones aisladas, el devengo se produce por la realización de cada una de ellas, debiéndose presentar las correspondientes declaraciones en la forma que se establezca reglamentariamente.

#### VI. GESTIÓN

##### ARTÍCULO 13

1. El impuesto se gestiona a partir de la matrícula del mismo. Dicha matrícula se formará anualmente y estará constituida por censos comprensivos de las actividades económicas, sujetos pasivos, deudas tributarias, y, en su caso, del Recargo Foral. La matrícula estará a disposición del público en el Ayuntamiento.

2. Los sujetos pasivos estarán obligados a presentar las correspondientes declaraciones en la matrícula de este impuesto, en los plazos y

*bidez ezartzen diren epeetan eta moduan.*

*Subjektu pasiboek, halaber, zergapean dauden jardueretan gertatutako aldakuntza fisiko, ekonomiko eta juridiko guztien berri eman beharko dute, baldin eta zerga honen ordainketan ondoriorik badute, eta arau bidez ezartzen diren epeetan eta moduan egin beharko dute jakinarazpen hori.*

*3. Zerga ikuskatzaileen jarduketak, altak edo zergadunek egindako jakinarazpenak direla eta zentsuetan datuak sartu, kendu edo aldatzen direnean, egintza hori administrazio-egintzatzat joko da eta zentsuaren aldarazpena ekarriko du. Matrikulan aldaketarik egin ahal izateko, zentsuetan dauden datuak ukitu behar badira, lehenengo eta behin zentsuetan egin beharko da aldaketa hori, nahitaez.*

#### **14. ARTIKULUA**

*1. Zerga ordainarazi, kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeko ahalmenak, bai borondatezko aldian bai premiamendu bidean, zergapeko jarduerak egiten diren udalerriko Udalari dagozkio.*

*2. Udal honen eskumeneko eginkizunak dira matrikula jendaurrean azaltzea, errekurtsu eta erreklamazioak ebaztea, zerga kobratzea, salbuespen eta hobariak aplikatzea eta zerga honekin zerikusia duten gaietan zergadunei laguntza eta informazioa ematea.*

*3. Foru Aldundiaren egitekoak dira matrikula osatu eta artatzea, jarduera ekonomikoak kalifikatzea eta kuotak ezartzea.*

*Hala ere, Foru Aldundiak nahiz udalek egin ditzakete egintza horien jakinarazpenak, bai eta zerga zorrak zehazteko likidazioen jakinarazpenak ere.*

términos que reglamentariamente se establezcan.

Asimismo los sujetos pasivos estarán obligados a comunicar las variaciones de orden físico, económico o jurídico que se produzcan en el ejercicio de las actividades gravadas y que tengan trascendencia a efectos de su tributación por este impuesto, formalizándolas en los plazos y términos que reglamentariamente se establezcan.

3. La inclusión, exclusión o alteración de los datos contenidos en los censos, resultantes de las actuaciones de inspección tributaria o de la formalización de altas y comunicaciones, se considerarán acto administrativo, y conllevarán la modificación del censo. Cualquier modificación de la matrícula que se refiera a datos obrantes en los censos requerirá, inexcusablemente, la previa alteración de estos últimos en el mismo sentido.

#### **ARTÍCULO 14**

1. Las facultades de exacción, gestión, liquidación, inspección y recaudación, tanto en período voluntario como por la vía de apremio, corresponden al Ayuntamiento en el que se ejerzan las actividades sujetas.

2. En materia de su competencia, corresponde al Ayuntamiento la exposición al público de la matrícula, resolución de recursos y reclamaciones, cobranza del impuesto, aplicación de exenciones y bonificaciones y actuaciones para la asistencia e información a la persona contribuyente referidas a las materias de este impuesto.

3. Corresponde de forma exclusiva a la Diputación Foral la formación y conservación de la matrícula, la calificación de las actividades económicas y el señalamiento de las cuotas.

Sin perjuicio de ello, la notificación de estos actos puede ser practicada por el Ayuntamiento o por la Diputación Foral junto con la notificación de las liquidaciones conducentes a





AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

## Ordenanza Fiscal nº 2 Impuesto sobre Actividades Económicas

### 2. Ordenantza Fiskala Jarduera ekonomikoen gaineko zerga

HOJA 13. ORRIA

la determinación de las deudas tributarias.

4. Udalaren ardura da ordainagiriak egitea, baina horrek ez du ezertan eragotziko Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 2005/9 Foru Arauaren 8. artikuluan azaltzen diren lankidetzarako bideak erabiltzea.

Udala eta Aldundia lankidetzan arituko dira zergaren matrikula osatzeko eta artatzeko; halaber, batera jardungo dute jarduera ekonomikoak kalifikatzeko eta kuotak ezartzeko orduan.

5. Salbuespenak eman edo ukatu aurretik beti eskatu beharko da Foru Aldundiaren txosten teknikoa, eta horri buruz hartzen den erabakiaren berri jakinarazi beharko zaio Foru Aldundiari.

#### 15. ARTIKULUA

Jarduerak kalifikatu eta kuotak ezartzeko egintzen aurka jartzen diren errekurso eta erreklamazioak direla-eta, aginduzkoa izango da Bizkaiko Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 156-168 bitarteko artikuluetan xedatutakoa, eta Bizkaiko Foru Aldundiak izango du eskumena errekurso eta erreklamazioak ebazteko. Errekurso edo erreklamazioa jarrita ere egintzaren betearazpena ez da etengo.

#### 16. ARTIKULUA

1. Udal honi dagozkion matrikulak Foru Aldundiak egingo ditu eta Udalari igorriko dizkio.

2. Behin matrikula jaso eta gero, Udalak jendaurrean azalduko du 15 egunez, ukitutako zergadunek aztertu ahal izan dezaten eta bidezko deritzeten erreklamazioak egin ahal izan ditzaten.

#### 17. ARTIKULUA

4. Corresponde al Ayuntamiento la confección de los recibos cobratorios, sin perjuicio de las fórmulas de colaboración a que se refiere el artículo 8 de la Norma Foral 9/2005, de 16 de diciembre, de Haciendas Locales.

El Ayuntamiento colaborará con la Diputación para la formación y conservación de la matrícula del impuesto, así como en la calificación de actividades económicas y señalamiento de las cuotas correspondientes.

5. La concesión y denegación de exenciones requerirá, en todo caso, informe técnico previo de la Diputación Foral, con posterior traslado a ésta de la resolución que se adopte.

#### ARTÍCULO 15

Los recursos y reclamaciones que se interpongan contra los actos de calificación de actividades y señalamiento de cuotas se registrarán por lo dispuesto en los artículos 156 a 168 de la Norma Foral General Tributaria de Bizkaia, siendo el órgano competente para resolver tales recursos y reclamaciones la Diputación Foral de Bizkaia. La interposición de estas reclamaciones no suspenderá la ejecutoriedad de los actos.

#### ARTÍCULO 16

1. Las matrículas correspondientes a este Ayuntamiento se confeccionarán por la Diputación Foral que las remitirá al Ayuntamiento.

2. Una vez recibida, el Ayuntamiento deberá exponerlas al público por un plazo de quince días para que las personas contribuyentes afectadas puedan examinarlas y formular, en su caso, las reclamaciones oportunas.

#### ARTÍCULO 17

1. Jendaurreko azalpen epea amaitu eta erreklamazioak ebatzi ondoren, emaitzaren ziurtagiria Foru Aldundiari igorriko zaio onets dezan.

2. Behin onetsita, Udalak ordainagiriak egingo ditu, Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 2005/9 Foru Arauaren 8. artikuluan azaltzen diren lankidetzarako bideen kalterik gabe.

## **VII. AZKEN XEDAPENA**

*Ekonomi Jardueren gaineko Zerga araupetu duen zerga ordenantza honek 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du indarra, behin betiko onetsi eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2018ko abenduaren 28ko 279. alean argitaratu eta gero, eta indarrean iraungo du harik eta hura aldarazi edo indargabetzea erabakitzen den arte.*

1. Concluido el plazo de exposición al público y resueltas las reclamaciones se remitirá a la Diputación Foral la certificación del resultado de la misma para su aprobación.

2. Una vez aprobado, se confeccionará por el Ayuntamiento los correspondientes recibos, sin perjuicio de las fórmulas de colaboración a que se refiere el artículo 8 de la Norma Foral 9/2005, de 16 de diciembre, de Haciendas Locales.

## **VII. DISPOSICIÓN FINAL**

La presente Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre Actividades Económicas empezará a regir el día 1 de enero de 2019, una vez aprobada definitivamente y publicada en el Boletín Oficial de Bizkaia nº 249 de fecha 28 de diciembre de 2018 y seguirá en vigor hasta tanto se acuerde su modificación o derogación.